

A close-up portrait of a middle-aged man with dark hair and a slight smile, looking towards the camera. He is wearing a white collared shirt. The background is a solid, vibrant green. The lighting is soft, highlighting the texture of his skin and the details of his facial features.

GARRAIO ETA ERREPIDE DEPARTAMENTUA

JARDUERA NAGUSIAK

Azpiegituren ponentzia
Gipuzkoako bide-garapenerako lau ardatz
Sarearen artapena
Garraioak

AZPIEGITUREN PONENTZIA

Zalantzarik gabe, 2002ko ekitaldian, Lurraldeko Batzar Nagusietan berretsitako bideen azpiegituren finantzazioari buruzko erabakia Departamentu honentzat errepideen alorrean izan den gertaerarik garrantzitsuenetakoa izan da. *Azpiegituren Ponentzia* izenekoak Gipuzkoako bide-sarearen beharrei erantzun egokia ematea ahalbidetuko du. Horrela bada, Eibar-Gasteiz autobidea bukatzea, A-8 zabaltzea eta errepideen planak betetzea ahalbidetuko du ponentzia horrek.

GIPUZKOAKO BIDE-GARAPENERAKO LAU ARDATZ

Errepideak egiteari dagokionez, gure lurraldeak bide-azpiegitura segurua eta herritarren egungo eta etorkizuneko mugikortasuna bermatzeko gai izango den azpiegitura izateko Gipuzkoako Foru Aldundia egiten ari den inbertsio ahaleginik handiena suposatzen duten 4 ardatz nagusitan izandako esku-hartzeak aipatu behar ditugu batez ere. Honako hauek dira 4 ardatzok:

- _ N-I errepidearen bikoiztura Etxegarate mendatean.
- _ Gasteiz-Eibar autobidea.
- _ Beasain-Durango bide ardatza.
- _ Urumeako autobia.

Etxegarateko bikoiztura

Zentzu honetan, *N-I errepidearen bikoiztura Etxegarate mendatean* egiteko lanak egiten jarraitu izana azpimarratu behar da. Lanok datozen asteetan¹ bukatuko dira. Era berean, N-I errepidearen ardatzean ere, Pasaiako saihebidetako egiteko lanei hasiera eman zaie.

¹ Txosten hau idazten ari garela, lanak amaitzeko puntuak daude.

Gasteiz-Eibar autobidea

Gasteiz-Eibar autobideari dagokionez, Bergara Iparraldea-Eibar bide zatiko lanak oso aurreratuta daude, tuneletako instalazioak eginda, eta bide hau 2003. urtean² zirkulaziorako irekiko dela aurreikusita dago. Bergara Hegoaldea-Bergara Iparraldea bide zatian lanak egiten jarraitzen dute eta bide zati hau ere 2003. urtean bukatuko dute. Arrasate-Bergara Hegoaldea bide zatian ere jarraitzen dute lanak egiten eta zirkulaziorako 2004. urtean egongo da zabalik. Obra honi dagokionez, Arabako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenaren arabera, gainontzeko trazadura finantzatzeko modua zehazteko eta autobide guztiaren kudeaketa egiteko azterlanaren idazketa-lanak egiten jarraitzen dute.

Beasain-Durango bide ardatza

Beasain-Durango bide ardatzak aurrera jarraitzen du, Bergarako Ekialdeko saihebidetako zirkulaziorako irekita eta Ormaiztegi-Zumarraga bide zatia egiteko lanak hasita.

Urumeako autobia

Martutene eta Hernaniren arteko bide zatian, Urumeako autobien proiektuaren egoerari dagokionez, Gipuzkoako Batzar Nagusietan Okendotegi izeneko bide zatien trazadura berrikusteko erabakia ponentzian egindako lanen ondoren, trazadura aldatzeko proiektuaren jendurereko informaldia egin da.

Bai burutzen ari diren, bai lizitazio-aldian dauden obra hauen guztien esleipeneko zenbatekoa 409.284.000 eurokoa da. Zenbatekoan obra-zuzendaritzarako laguntza teknikoak ere sartuta daude.

BESTE JARDUERA BATZUK

- _ 2002. urtean Astigarragako saihebidetako eta Irunen dagoen N-I errepidearen 479,500 kilometroko hirugarren erreia zirkulaziorako ireki dira eta GI-627 errepidean, Elorregi-Epele bide zatia zabaldu eta hobetu egin da. Horiez gain, N-I errepidean, Añorga-Txikiko biribilgune zatitua eta Idiazabalgo Jeronimoeneako biribilgunea ere ireki dira zirkulaziorako.

² Txostena idazten ari garela, lan horiek bukatzeko puntuak daude.

_ Halaber, Errotaburuko biribilgunea egiteko eta Zarautz hiribidea zuzentzeko lanak hasita daude, baita Beasaingo 2. Sektorean N-I errepideko zerbitzu-bidea, Chillida-Lekurako sarbidea oinezkoiei errazteko GI-2132 errepidearen azpiko igarobidea eta Elgoibarko Melitongo biribilgunea egiteko lanak ere.

_ GI-2630 errepidean, Zubillagako (Oñati) saihebiderea, Hondarribiako saihebiderearen 1. fasea, Pasaiaiko Gomizte-giko biribilgunea, Elgoibarko Mahalako biribilgunea, Mendaroko Garagartza eta Azpilgoeta auzuneetarako sarbideak eta Santiagoko zubiaren eta Irungo azokagunerako sarbideko biribilgunearen arteko N-I-H bide zatiaren bikoiztura egiteko lanen esleipena eginda egotea aipatu beharra dago, baita beste obra txikiago batzuen esleipena ere. San Juandegiko biribilgunearen lizitazioari eta Azpeitiko Auzarazako biribilgunearen erreformari eta Lezoko oinezkoen zaldaina egiteari ere ekin zaie.

Burutzen ari diren edo lizitazioan dauden obra horien esleipen zenbatekoa handia da, 32,5 milioi eurotik gorako diru-kopurua da eta.

Proiektuen idazketa eta kudeaketa egiteko ere ahalegin handiak egin behar izan direla aipatu beharra dago.

_ Donostiako bigarren ingurabidearen trazadura proiektua eta A-8 autobidean, Oiartzun (Arragua) eta Irungo Katea artean, hirugarren erreia jartzeko proiektua bukatzen ari dira.

_ Beasain-Durango bide berrian, Zumarraga-Bergara bide zatiaren trazadura proiektuaren idazketa esleituta dago.

_ N-I errepideari dagokionez, zenbait proiektu idazten ari dira; hala nola, N-I errepidearen Irungo saihebiderearen Iparaldeko loturarena eta Errenteriaren eta Irunen arteko bide zatian bidea zabaltzeko obrak zehazteko azterlana.

_ Gasteiz-Eibar autobideari dagokionez, *Arlaban-Eskoriatza bide zatia egiteko proiektua* idazten jarraitzen dugu.

_ Urumeako ardatzean, *Martutene-Hernani bide zatia egiteko proiektua* idazten jarraitzen dugu. Autobia hau Amaran sartzeko trazadura ere aztertzen ari gara eta *GI-131 errepidearen Andoingo eta Urrietako saihebiderearen trazadura proiektuaren* idazketa lizitazioan dago. Beste alde batetik, *A-15eko erdiloturatik Andoingo Bazkardoko loturaraino, N-I errepidean hirugarren erreia jartzeko alternatiben informazio-azterlana* ere egiten ari gara.

_ *Mutrikuko GI-638 errepidea N-634 errepidearekin Deban bat egiteko lotura berria egiteko proiektu* aldatuaren idazketa esleituta dago, baita *Amezketako saihebiderea egiteko proiektua GI-2133 errepidean* eta *Mutrikutik Sasiolarako GI-3230 errepideko saihebiderearen trazaduraren proiektua eta N-634-Sasiola eta Kalbario-Mutriku bide zatiak egiteko proiektua* ere.

_ Azkenik, *Zaldibiako saihebiderea egiteko proiektuaren eta Azpeitiko saihebidereko alternatiben azterlanaren* jendaurreko informaldia burutu dugu.

SAREAREN ARTAPENA; ZIRKULAZIO HOBEA, SEGURTASUN HANDIAGOA

Zirkulaziorako zabaltzen ari garen bide zati berrien ezaugarri teknikoak hobeak direlako, zirkulazioa handiago delako eta erabiltzaileek zerbitzuan kalitate hobe eskatzen digutelako, guretzat errepideen sarearen artapena garrantzi handiago hartzen ari da egunetik egunera. Azken urteetan jarduera garrantzitsu honetarako bideratu ditugun aurrekontu-sailei dagokionez ahalegin handiak egin ditugu. Horrela bada, 2002. urtean 27,6 milioi euro baino gehiago inbertitu ditugu eta horietatik 25,8 milioi inbertsioetarako izan dira.

Programa honetako jarduketako-ildo nagusiak honako hauek izan dira:

_ Artapen arrunteko hobekuntzak. Zentzu honetan N-I, A-15 eta B zonako sare gorri eta laranja bideen (N-634, GI-627, GI-631, GI-632 eta GI-638) artapen integralerako sinatu ditugun 2 kontratuak aipatu beharra dago.

_ Fabrika obren artapenari arreta handiago eskaini diogu eta, horrela bada, denboraren eragina izan duten zubiak eta tunelak konpontzeko eta birgaitzeko zenbait obra burutu ditugu.

_ Bide segurtasuna oso garrantzitsua da eta, ildo horretatik, besteak beste, gure errepideetako zutikako seinaleak berritu ditugu, segurtasun barrera berriak jarri ditugu eta istripuak pilatzen diren bide zatietan tratamendu bereziak aplikatu ditugu.

Lan hauek egiterakoan bideetan dabiltzanei ahalik eta oztoporik gutxiena egiten saiatu gara. Horrela bada, zirkulazio dentsitate handieneko bide zatietan obrak gauzez edo asteburuetan egiten ditugu.

BIDAIARIEN GARRAIO ZERBITZUAREN SUSTAPENA ETA HOBEKUNTZA

a) Gaueko zerbitzuak: larunbateko 23:00etatik igandeko 06:00etara arteko garraioaren gaueko zerbitzuen esperientzia ona izan dela ikusirik, eta ibilgailu pribatuaren erabilera murrizteko eta, batez ere, gazteei leku batetik beste batera joateko modu seguruagoa eta erosoagoa eskaintzeko asmoz, Departamentuak 2002. urtean aipatu zerbitzuen finantzazioa luzatzea erabaki zuen. Horretara 308 mila euro baino gehiago bideratu genituen.

b) Ibilgailu hobeak: Departamentuak bere eskumenen alorrean diharduten bidaiarien garraio zerbitzuetako enpresei laguntzak ematen jarraitu du. Horrela bada, 721 mila euro baino gehiago eman ditu ibilgailuak modernizatzeko, batez ere, plataforma baxua dutenak modernizatzeko; izan ere, mugikortasuna murrizturik duten pertsonen garraio kolektiborako egokিতuta daude horiek.

c) 21 udalerrri konektaturik: Departamentuak ia 150 mila euro bideratu ditu Tolosaldean 21 udalerriri zerbitzua ematen dien kontzesioaren ustiapen gastuetarako; izan ere, alde horretan 30.000 lagun bizi dira geografikoki bananduta. Zerbitzuen hasiera eta bukaera Tolosan da.

d) Instalazioen hobekuntza: garraio publikoaren zeharkako sustapenean jarraitu dugu, markesina berriak jarrita eta hainbat bazterleku eginda, autobusa itxaron behar duen jendea han egon dadin eta bide batez bide zirkulazioa ez oztopatzeko. Lurraldeko udalekin batera eramaten da aurrera ekintza hori eta guztira jarritakoak 120 mila euroko balioa du.

A-8 AUTOBIDEKO BIDESARIARENTZAKO HOBARIAK

Azken hamabi hilabeteotan, A-8 autobideko hobariei dagokienez, 5,8 milioi eurotik gorako zenbatekoa ordaindu zaie erabiltzaileei eta beste 2.000 txartel eman dira. Horrela, banatutako txartelak guztira 44.000 dira, hoberia dutenak, batez beste, 22.500 badira ere.

MERKANTZIEN GARRAIORAKO AZPIEGITURAK

a) Behin Zubietako Garraio Zentroaren hirigintza- alorreko espedientearen izapideak eginda, urbanizazio-lanak eta obren zuzendaritzarako laguntza teknikoak esleitu genituen eta horien aurrekontuak, hurrenez hurren, 8.200.000 eta 203.436 eurokoak dira. Garraio Zentroak 238 kamioi handi eta 64 autoentzako aparkalekua izango du. Obrak errepi-detiko merkantzia-garraioan diharduten enpresei partzelak salduta finantzatzeko ditugu.

b) Lurraldeak merkantzien garraiorako azpiegituren sare ona izatea helburu, eta garraioaren kontrolerako guneei dagokienez, Departamentuak tona askotako ibilgailuak pisatzeko baskula bat egiteko obrak esleitu zituen. Baskula hori A-8 autobidearen 7,600 kilometroan egongo da, Irungo ordainlekuan, eta egiteko zenbatekoa 221.233 eurokoa izango da. Bestalde, N-I errepedeko 402,500 kilometroan (Gasteiz-Irun norabidean) beste baskula bat egongo da eta honen zenbatekoa 239.480 eurokoa izango da. Bi baskulak gehiegizko zama eramaten duten garraiolariantzat disuasio-neurri egokiak izango direla espero dugu. Horrek guztiak zamak modu orekatsuan banatzen ez ezik, errepedeen egoera hobea izaten eta zirkulazioa seguruagoa izaten ere lagunduko du.

Errepideetako esku-hartze nagusiak

ESLEIPEN ZENBATEKOA
(euro miliotan)

N-1 saihesbidearen proiektua Etxegarate mendatean. 3. fasea Etxegarateko saihesbidea	49,745
Gasteiz-Eibar autobidea. Bidea: Bergara Iparraldea-Eibar (A fasea)	59,191
Gasteiz-Eibar autobidea. Bidea: Bergara Iparraldea-Eibar (B fasea)	57,572
Gasteiz-Eibar autobidea. Bidea: Bergara Hegoaldea-Bergara Iparraldea	59,041
Gasteiz-Eibar autobidea. Bidea: Arrasate-Bergara Hegoaldea Bideunea: Elorregi-Bergara Hegoaldea	29,446
Gasteiz-Eibar autobidea. Bidea: Arrasate-Bergara Hegoaldea Hegoaldeko bideunea	40,660
Gasteiz-Eibar autobideko instalazioak. Bidea: Bergara Iparraldea-Eibar	15,222
Pasaiako saihesbidea	33,075
Ormaiztegi-Zumarraga	38,546
Bergarako Ekialdeko saihesbidea	16,103
GUZTIRA	398,601

ESLEIPEN ZENBATEKOA
(euro miliotan)

Errotaburuko biribilgunea eta Zarautz hiribidea konpontzea	6,775
Zubillagako (Oñati) saihesbidea	4,481
Hondarribiako saihesbidea, 1. fasea	1,706
Melitongo biribilgunea	1,240
N-I-H bidearen bikoiztura, Santiagoko zubiaren eta Irungo azokagunerako sarbidearen artean	0,869
Orion, N-634 zabaltzea, hobetzea eta espaloia egitea	1,011
Mahalako biribilgunea	0,949
Mendaroko biribilgunea	0,732
Gomiztegiko biribilgunea	0,691
Chillida-Lekurako sarbidea	0,591
Beste batzuk	1,039
GUZTIRA	20,084